



elika
Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ELIKAGAIEN ETIKETATUA

Sarrera

Elikagaien etiketatua, elikagaien ekoizle eta kontsumitzaileen arteko oinarrizko komunikazio bidea da.

Etiketatuaren helburua, kontsumitzaileei informazio zehatza ematea da, produktuen konposizio eta edukierari buruzkoa, beraien osasuna eta interesak bermatu nahian. Etiketak ere, bestelako informazioa eman dezake, produktuaren jatorria edo ekoizpen metodoa adibidez. Beste elikagai batzuk, beste legedi espezifiko bat eduki

ditzakete, OGM eta alergenoen kasua adibidez.

Etiketatua zera da: aipamenak, oharrak, fabrika markak, marrazkiak edo produktuarekin erlazionaturiko seinuak, dokumentuak, etiketak, edo produktua laguntzen duen bestelako edozein etiketa.

Kontsumitzaileari zuzenean (beste inolako transformaziorik gabe) helduko zaien produktuek etiketa eraman beharko dute. Solteko salgaietan, ekoizlearen informazioa salmentaren bukaeraraino eduki beharko da, produktuaren identifikazioa baimentzeko.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Etiketatuak ezingo du produktuak ez duen efektu edo propietaterik adierazi, eta ezingo dute kontsumitzailea huts egitera eraman.

Derrigorrezko etiketa

Saltzeko izena

Elikagaia merkaturatzean, produktuari jarriko diogun izena jasota egon beharko da aldez aurretik Europako Erkidegoak produktu horretarako dituen xedapenetan.

Europako Erkidegoak jasota izango ez balu inolako xedapenik produktu horretarako, Espainiakoak hartu beharko lirateke

kontuan. Baina, ere beran onartuko da produktu hori legalki fabrikatu eta merkaturatzean erabiltzen den izena ere (produktua fabrikatu eta merkaturatzen duen estatu kideak deitu dion modu-moduan).

Produktua saltzeko izena ezin izango dute ordezkatu ez merkataritza markek, ez eta fabrikako markek ere.

Eta, era berean, elikagaia zein egoera fisikotan dagoen eta zein tratamendu zehatz jaso duen (hautsa, liofilizatua, izoztua,...) ere agertu beharko du etiketan baldin eta, informazio hori agertu ezean, erosleari okerren bat eragin ahal izango balio.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Elikagaiak ion-irradiazioaren tratamendua jaso badute, honako adierazpenen bat izan beharko dute: "irradiatua" edo "ion-irradiazioa jaso du".

Xedapen zehatzek elikagaia erregulatzen duten kasuetan, kalitate-izendapen tipifikatuak erabili beharko dira.

Osagaien zerrenda

Osagaien zerrendan osagai guztiak agertu beharko dira pisu gehien dutenetik hasi eta gutxien dutenak aipatu arte; horretarako, elikagaia ekoiztean erabiltzen diren osagaiak eta berorien pisuak hartuko dira kontuan.

Fruten, ortuarien, espezien edo landare aromatiko

nahasketei dagokienez, nahasketa horretan inongo osagairik nabarmentzen ez denean, osagaiak edozein ordenatan agertu ahal izango dira etiketan. Baina osagaien zerrendarekin batera "proportzio aldakorra" bezalako aipamena agertu beharko da.

Zenbait osagaien informazio kuantitatiboa

Osagai baten kopuru zehatza adierazi beharko da hurrengo kasuetan:

- saltzeko izenean bertan aipatzen denean osagaia edo kontsumitzaileak osagai hori izenarekin lotzen duenean.
- osagai hori etiketan nabarmentzen



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

deneahitzen, irudien
edo grafikoan bidez.

Alkohol maila

%1,2tik gorako alkohol
maila duten edarien kasuan,
zein alkohol tasa
bolumetrikoa duten agertu
beharko da.

Alkohol mailari buruzko
datuan, gehienez dezimal
bat zehaztu eta "% bol"
sinboloaren atzetik agertu
beharko da. "Alkohol" hitza
edo "alk." laburdura ondoren
agertu ahal izango dira,
baina ez ezinbestez.

Kopuru garbia (netoa)

Ontziratutako elikagaien
kopuru garbia horrela agertu
beharko da:

- produktu likidoak
bolumen unitateetan
- gainontzeko
produktuak masa
unitateetan

Kasua zein den
hurrengo unitateak
erabiliko dira: litroa
(l), zentilitroa (cl),
mililitroa (ml) edo
kilogramoa (kg) edo
gramoa (g).

Datak zehaztea

Elikagaiaren etiketan
zehaztu beharko da zein den
gutxieneko iraupena edo,
beharrezkoa izanez gero,
zein den iraungitze-data.

Gutxieneko iraupena
zehazteko, hurrengo



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

esaldietako bat erabili
beharko da:

- "ahal bada, data hau baino lehen kontsumitu"
- "ahal bada, data hau igaro baino lehen kontsumitu"

Aurreko esaldiekin batera,
ondoko hau ere zehaztu
beharko da:

- data bera
- etiketaren zein lekutan agertzen den data

Data argi eta garbi agertu
beharko da, eta hurrengo
ordena izango du: eguna,
hila eta urtea.

Hala ere, hurrengo
elikagaiekin ezberdin jokatu
ahal izango da:

- Hiru hiletik beherako elikagaiekin, eguna eta hila zehaztea nahiko izango da.
- Hiru hiletik gorako eta 18 hiletik beherako elikagaiekin, hila eta urtea zehaztea nahiko izango da.
- 18 hiletik gorako elikagaiekin, urtea zehaztea nahiko izango da.

Mikrobiologikoki oso erraz
galtzen diren elikagaien
kasuan, kontsumitzaileen
osasuna arriskuan jarri ahal
badute oso denbora
laburrean, "gutxieneko
iraupena" zehaztu
beharrean, "iraungitze-data"
zehaztu beharko da.

Lotea

Lotea da produktu baten
zenbat unitate saltzen diren;



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

betiere produktu hori modu bertsuan ekoiztu, fabrikatu edo ontziratua izan bada.

Jatorrizko herrialdea

Europar Batasuneko estatu kideen kasuan, produktuaren jatorrizko herrialdea zehaztu beharko da baldin eta, informazio hori agertu ezean, erosleari okerren bat eragin ahal izango balio.

EBko herrialdeetatik kanpoko produktuen kasuan, nongoak diren zehaztu beharko da ezinbestez.

Ontzi txikiak

Ontziaren alde handienak 10 cm²-tik beherako superfiziea duenean, hurrengo informazioa baino ez da beharrezkoa izango

zehaztea: zein den produktuaren izena, zein den kopuru garbia eta zein datatan kontsumitu behar den.

Ontziratutako gabeko produktuak

Ontziratutako gabeko elikagaien etiketan, saltzeko izena agertu beharko da gutxienez. Izen horrekin batera, hurrengo informazioa ere agertu beharko da:

- kalitate maila, aldaera eta jatorria Kalitate Arauak horrela eskatuz gero.
- haragien kasuan, halaber, zein kanal motetatik datorren eta piezak zein izen komertzial duen ere agertu beharko da.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

- arrain eta akuikultura produktuetan, zein modutan aurkezten den merkatuan ere agertu beharko da.
- eta gorago azaldu dugun moduan, osagai bakoitzaren kopurua ere agertu beharko da.
- %1,2tik gorako alkohol maila duten edarien kasuan, zein alkohol tasa duten agertu beharko da.

Txikikazko merkataritzako titularrek ontziratutako produktuak

Txikikazko merkataritzako titularrek ontziratutako produktuen kasuan, ontziratzen diren egunean bertan horrela aurkezten badira eta berehala saltzeko produktuak izanez gero, ... datuak zehaztu beharko dira

etiketan, zein lotetakoak diren izan ezik.

Erosleak nahiko informazioa duela bermatzen den kasuetan, plastikozko zein zelulosazko poltsak edo ontziak (gardenak eta kolore gabekoak badira) erabiltzen direnean, produktua lehen begi-kolpean identifikatu ahal denean eta ontzi horiek erabiltzen direnean frutak, ortuariak, tuberkuluak edo fruitu lehorrak ontziratzeke, honako informazio hau agertu beharko da etiketan:

- saltzeko izena, eta horrekin batera zein den aldaera, zein den



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

alderaren kalitate
maila eta zein den

jatorria Kalitate

Arauk horrela

eskatzuz gero

- kopuru garbia
- enpresaren izena

Derrigorrezko informazioaren aurkezpena

Elikagaiak ontziratuak
aurkezten diren kasuan,
agertu beharreko
ezinbesteko informazioa
ontzian bertan edo horri
erantsitako etiketan agertu
beharko da.

Ezinbestekoa izango da
ikusmen-eremu berean

hurrengo informazio hau
agertzea:

- saltzeko izena
- kopuru garbia
- datak
- alkohol maila
(beharrezkoa izanez
gero)

Etiketaren hizkuntza

Espanian merkaturatzen
diren produktuen kasuan,
etiketan agertu beharreko
informazioa, gutxienez,
estatuko hizkuntza ofizialean
agertu beharko da.

Aurreko atalean
zehaztutakoa ez zaie
aplikatuko hizkuntza propioa
duten erkidego
autonomoetako produktu
tradizionalei, betiere
produktu horiek erkidego



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

horretan ekoiztu eta banatzekoak baldin badira.

Aukerako etiketa

Gorago zehaztutako informazioaz gain, etiketek informazio gehigarria jaso ahal izango dute idatziz, inpresioz edo grafikoaz, betiere arau orokorrean zehaztutakoarekin kontraesanik sortzen ez bada.

Elikagaien nutrizio propietateen gainerako etiketak

Etiketan agertu beharreko informazioa

Nutrizio-propietateen gainerako etiketa beharrezkoa izango da betiere produktu horrek nutrizio-propietate bereziak dituela aipatzen denean (etiketan, produktua aurkeztean edo produktuari buruzko publizitatean). Gainontzeko kasuetan, nahi bada agertuko da eta nahi ez bada ez da beharrezkoa izango.

Onartutako informazioa

Nutrizio-propietateen gainerako informazioa bakar-bakarrik onartuko da energia-balioari eta hurrengo nutrienteei erreferentzia egiteko: proteinak, karbohidratoak, koipea, zuntza, sodioa, bitaminak, gatzak eta mineralak, bai eta nutriente



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

horren kategoriaren barruan dauden substantziak edo nutriente horien osagaiak ere.

Informazio modalitateak etiketan

Nutrizio-propietateen gaineko etiketa sortzean, 1 taldeari edo 2 taldeari buruzko informazioa zehaztu beharko da eta hurrengo ordena jarraitu beharko da:

- a) 1. taldea
 - energia-balioa
 - proteina, karbohidrato eta koipe kopurua
- b) 2. taldea
 - energia-balioa
 - proteina, karbohidrato, koipe, azukre, gantz-azido saturatu, zuntz eta sodio kopurua

Nutrizio-propietateen gaineko etiketak, halaber, hurrengo substantzietan buruzko kopurua ere jaso ahal izango du:

- almidoia
- polialkoholak
- monoinsaturatuak
- poliinsaturatuak
- kolesterola
- kopuru esanguratsuetan dauden bitaminak edo gatz mineralak

Nutrizio-propietateen adierazpena egin nahi den kasuetan, substantzia guztien berri eman beharko da.

Era berean, poliinsaturatuen kopurua, monoinsaturatuen kopurua edo kolesterol maila zehazten denean, gantz-



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

azido saturatuen kopurua
ere zehaztu beharko da.

Informazio kuantitatiboa

Energia-balioari eta
nutriente- edo osagai-
edukiari buruzko
zehaztapenak zenbaki bidez
eman beharko dira.
Horretarako, hurrengo
unitateak erabili beharko
dira:

- energia: KJ eta Kcal
- proteinak: gramoak (g)
- karbohidratoak: gramoak (g)
- koipea (kolesterol maila izan ezik): gramoak (g)
- zuntza: gramoak (g)
- sodioa: gramoak (g)
- kolesterol maila: miligramoak (mg)
- bitaminak eta gatz mineralak: zein den

kasua, edo
miligramoak (mg) edo
mikrogramoak (μ g)

Informazioa emateko
orduan, edo 100 g-ri edo
100 ml-ri egingo zaio
erreferentzia.

Aipatzen diren kopuru
guztiek erreferentzia egingo
diote elikagaiari (elikagaia
saltzen den modu-moduan).

Bitamina eta gatz mineralen
gaineko informazioa
emateko orduan,
Gomendatutako Eguneko
Kopuruaren (CDR)
portzentajea hartuko da
kontuan. Baina grafiko baten
bidez ere jaso ahal izango da
azken hauen informazioa.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Informazioaren egitura etiketan

Nutrizio-propietateen gaineko informazio guztia leku berean agertu beharko da, eta taula baten bidez adieraziko da. Nahiko espazioa egonez gero, gainera, zutabetan eman beharko da. Nahiko espaziorik egon ezean, lerroak erabiliko dira.

Ontziratutako gabeko elikagaien kasuan, ospitale, jantoki eta antzeko taldeentzako elikagaien kasuan edo saltokietan bertan ontziratzen diren elikagaien kasuan (erosleak hala eskatuta), produktuarekin batera kartel bat ere agertuko da. Kartel horretan, modu argian

agertuko dira etiketak jaso beharko lituzkeen datu guztiak (produktua ontziratua izanez gero jasoko lituzkeenak).

**Elikagaien ezaugarri
osansuntzuak eta
nutrizionalak aitortzea**

1924/2006 (EE) Araudiak erregulatu egiten du nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen informazioa; eta, era berean, bateratu egiten ditu estatu kideen legezko, erregelamenduzko eta administrazioko xedapenak barne merkatuko funtzionamendu eraginkorra bermatze aldera. Eta,



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

halaber, kontsumitzaileei babes maila altua ematen die.

Araudia aplikatzen da merkataritzako adierazpenen gainean, bai etiketan, bai produktuaren aurkezpenean, bai elikagaien publizitatean (azken kontsumitzaileentzako elikagaien kasuan).

Horrez gain, hurrengo establezimenduetan banatuko diren elikagaiei ere aplikatuko zaie: jatetxe, ospitale, ikastetxe, kantina eta taldeei zuzendutako elikagaiak banatzen dituzten antzeko lekuetan.

Adierazpen guztietarako oinarri orokorrak

Nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak ez dira izango:

- Ez faltsuak, ez eta iruzurtiak ere.
- Ez dute zalantzarik sorraraziko ez segurtasunari buruz ez beste elikagaia batzuen nutrizio-egokitasun mailari buruz.
- Ez du eragingo elikagairen bat gehiegi kontsumitzea.
- Ez du adieraziko, ez du aditzera emango edo ez du iradokiko dieta orekatuak eta elikagai mota askotako dietak ezin diola ekarri kontsumitzaileari nutriende kopuru egokirik.
- Ez du erreferentziarik egingo gorputzaren



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

funtzio-aldaketei buruz, adierazpen horrek alarma piztu ahal badu kontsumitzailearengan edo beldurra sorrarazi.

Nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak erabiltzeko baldintzak

Batzordeak nutrizio-profil espezifikoak zehaztuko ditu hainbat elikagaitarako edo elikagai batzuen kategorietarako nutrizio edukien adierazpenak eta ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak egokiak izate aldera.

Nutrizio-profilak zehazteko hurrengo arloak hartuko dira kontuan:

- Nutriente zehatz batzuen kopuruak eta elikagaietako zenbait substantziaren kopuruak, hala nola: koipea, gantz-azido saturatuak, trans motako gantz-azidoak, azukreak, gatza edo sodioa.
- Elikagaietako funtzioa eta garrantzia eta zelako eragina duten herritarren dietan oro har.
- Elikagaietako nutrizio-konposizio orokorra eta zientzia esparruak elikagai horri aitortu badio osasunean izan lezakeen eragin positiboa.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Dietari eta nutrizioari buruzko zientza- ezagupenetan oinarritzen dira nutrizio-profilak, bai eta osasunean izan lezaketen eraginean ere.

Baldintza orokorrak

Nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak erabili ahal izango dira hurrengo hau betetzen bada, bestela ez:

- Frogatu ahal izan bada nutriente bat edo substantzia bat elikagai batean egoteak, edo ez egoteak edo kopuru baxuan egoteak eragin positiboa izan ahal duela nutrizio

mailan edo maila fisiologikoan, betiere oro har onartutako zientzia frogek zehaztu ahal izan dutenean.

- Nutrientea azken produktuan eta kopuru esanguratsuan agertzen bada legeak adierazi bezala edo nutrizio mailan edo maila fisiologikoan lortu nahi den eragina lortzeko kopuru egokian agertzen bada.
- Nutrientea ez egoteak edo kopuru baxuan egoteak eragin positiboa izan ahal badu nutrizio mailan edo maila fisiologikoan, betiere oro har onartutako zientzia frogek zehaztu ahal izan dutenean.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

- Hala balebago, gortzak asimilatu ahal duen moduan agertzen bada.
- Kontsumituko den kopuruak nutriente horren edo beste substantzia baten kopuru esanguratsua ekarriko duenean (adierazpenak horren gaineko erreferentzia zuzena egiten duenean).

Nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak bakar-bakarrik onartuko dira espero dugunean batez besteko kontsumitzaileak ulertuko duela produktu horrek onurak ekarriko dizkiola adierazpenak jasotzen duen modu-moduan.

Nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenek erreferentzia egiten diete "kontsumitzeko prest dauden" elikagaiei, betiere fabrikatzaileen jarraibideekin bat etortzen badira.

Adierazpenen zientzi oinarria

Nutrizio edukien eta elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak oinarritu beharko dira onartutako zientzia frogetan.

Elikadura enpresetako esplotatzaileek adierazpen bat egitekotan, justifikatu beharko dute berori erabiltzea.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Erakunde eskudunek eskatu ahal izango diote esplotatzaile bati aurkez ditzala elementu eta datu guztiak; horrela, frogatu ahal izango du legedia betetzen dutela.

Nutrizio-informazioa

Nutrizio-propietateen gaineko informazioa eman eta horren gaineko prozedurak zehaztu behar izango dira, halaber, osasunerako eragin positiboa dutelako adierazpena egiten denean.

Era berean, nutrizio arloko adierazpen batek aipamena egiten duenean substantzia bati edo batzuei buruz, eta substantzia horiek nutrizio-etiketan agertzen ez badira,

nutrizio-informazioa agertzen den ikusmen-eremu berebean agertu beharko da substantzia horien kopurua.

NUTRIZIO ADIERAZPENAK

Baldintzak espezifikoak

Bakar-bakarrik emango da baimena baldintza espezifikoak jasotzeko baldin eta legediak ere jasotzen baditu eta zehaztutako baldintzetara egokitzen badira.

Aldaketak egin aurretik, kontsulta egin beharko zaio erakunde eskudunari. Eta hala balegokio, Batzordeak inplikazioa eskatuko die alderdi interesdunei aipatutako adierazpenak



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

jaso eta ulertzeko modua
azter dezaten.

Konparaziozko adierazpenak

Kategoria bereko elikagaiak baino ezin izango dira konparatu. Aipatu beharko da zein diferentzia dagoen nutriente baten edukiarekin edo beraren energia-balioarekin; eta, era berean, konparazioak erreferentzia egin beharko dio elikagaiaren kopuru berari.

EZAUGARRI OSASUNTSUEN GAINKO ADIERAZPENAK

Baldintzak espezifikoak

Bakar-bakarrik onartuko dira elikagaien ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak baldin eta

etiketak hurrengo
informazioa jasotzen badu:

- Zein garrantzitsua den elikagai askoko dieta eta dieta orekatua jarraitzea, bai eta bizitza-estilo osasuntsua ere jasoko duen aitorpen bat.
- Aitortzen zaion eragin onuragarria lortzeko, elikagai bateko zein kopuru eta zein kontsumo-patroi diren beharrezkoak adieraztea.
- Hala balegokio, aitorpen bat egitea adierazteko elikagai hori zein pertsonak ez lukeen kontsumitu beharko.
- Ohar egokia egitea gehiegi kontsumitzen diren produktuen gainean, kontsumitzailearen osasunerako



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

kaltegarriak izan
litezkeela
ohartarazteko.

Nutrientearen edo
elikagaiaren onura orokorrei
eta ez-espezifikoei buruzko
erreferentzia (osasun ona
eragingo dutela oro har)
bakar-bakarrik egin ahal
izango du baldin eta horrekin
batera ezaugarri osasuntsu
espezifikoen gaineko
adierazpena ere eransten
bada eta ezaugarri horiek
zerrenda batean jasotzen
badira.

Ezaugarri osasuntsuen
gaineko adierazpenak
murriztea

Ez da baimenik emango
ezaugarri osasuntsuen
gaineko hurrengo
adierazpenak egiteko:

- Iragarritako elikagai
hori kontsumitu
ezean, osasunean
eragina izan
lezaketela iradokitzen
duten adierazpenak.
- Pisua zein erritmotan
edo zein neurritan
galduko den
ohartarazten duten
adierazpenak.
- Medikuz zehatzek
egindako gomendioei
erreferentzia egiten
dieten adierazpenak.

Gaixotzeko arriskua murriztu
ahal dutela eta umeen
garapenari eta osasunari
lagundu ahal diotela
ohartarazten ez duten
ezaugarri osasuntsuen
gaineko adierazpenak

Ezaugarri osasuntsuen
gaineko hurrengo
adierazpenak:



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

- nutriente batek edo beste substantzia batek izan ahal duen eragina hazteko prozesuan, garapenean eta gorputzaren funtzioetan
- funtzio psikologikoetan eta jokaeraren gaineko funtzioetan
- argaltzeko gaitasunean, pisua kontrolatzean, gose-sentsazioa murriztean, ase-sentsazioa areagotzean, dietaren energia-balioa murriztean

legediak aurreikusitako zerrendan jasota agertzen badira, onargarriak izango dira, betiere hurrengo hau ere betetzen bada:

- oro har onartutako zientzia frogetan

oinarritu ahal izan direnean, eta

- batez besteko kontsumitzaileak ulertzeko modukoak badira.

Batzordeak erkidego mailako zerrenda bat jasoko du onartutako adierazpen guztiak biltzeko.

Gaixotzeko arriskua murriztu ahal dutela eta umeen garapenari eta osasunari lagundu ahal diotela ohartarazten duten ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenak

Gaixotzeko arriskua murriztu ahal dutela eta umeen garapenari eta osasunari lagundu ahal diotela ohartarazten duten ezaugarri osasuntsuen gaineko



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

adierazpenak egin ahal izango dira, betiere zehaztutako prozedurarekin bat badatoz eta erkidego mailako zerrenda batean jaso badira adierazpen horiek erabiltzeko beharrezkoak diren gainontzeko baldintzekin batera.

Gaixotzeko arriskua murriztu ahal dutela ohartarazten duten ezaugarri osasuntsuen gaineko adierazpenei dagokienez, etiketak azalpen jaso beharko du ohartarazteko gaixotasunak arrisku faktoreak dituela, eta arrisku faktore horietakoren bat aldatzeak kontsumitzaileari onura ekarri ahal diola edo ezin diola ekarri.

Legedi berria: Errege Dekretua 1669/2009

ELIKAGAIEN NUTRIZIO- PROPIETATEEI BURUZKO ETIKETAREN ARAUA ALDATZEA

Joan den azaroaren 6an onetsi zen 1669/2009 Errege Dekretua, elikagaien nutrizio-propietateei buruzko etiketen araua (930/1992 Errege Dekretuak onetsia) aldarazten duena. Dekretuak txertatzen du, arlo horretako 2008ko Europako azken Zuzentaraua, 2008/100/CE Zuzentaraua alegia.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Nutrizio-propietateen etiketen bidez, kontsumitzaileak informazioa jasotzen du produktuen balio energetikoari edo nutrienteei buruz. Ondorioz, bere beharretara hobekien egokitzen den produktua aukera dezake.

Errege Dekretu berriak artikulua bakarra du. Artikulu horrek elikagai-zuntza zer den definitzen du, oraindik definitu gabe baitzegoen:

“Elikagai-zuntza: . Heste meharrak digeritu eta xurgatu ezin ditzakeen eta hiru unitate monomeriko edo gehiago dituzten karbohidrato-polimeroak dira. Hauek zenbait kategoriatakoak izan daitezke:

Prestatu gabeko elikagaietan modu naturalean dauden karbohidrato-polimeroak, jatekoak direnak.

Prozesu fisiko, entzimatico edo kimikoen bidez elikagaietatik lortu diren karbohidrato-polimeroak, jatekoak direnak. Hauek eragin fisiologiko onuragarria dutela egiaztatu da eskuarki onetsitako zientzia proben bidez.

Karbohidrato-polimero sintetiko eta jangarriak. Eragin fisiologiko onuragarria dutela egiaztatu da eskuarki onetsitako zientzia proben bidez”.

Gainera, Errege Dekretuaren 6. artikuluari honako hau erantsi zaio:



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

h) elikagai-zuntza: 2 Kcal/g
= 8 kJ/g

i) eritriola: 0 Kcal/g = 0 kJ/g

Horretaz guztiaz gain,
ordezkatu egin da elikagaien
nutrizio-propietateei buruzko
etiketen arauaren eranskina.
Horretan, aitortu daitezkeen
bitaminak eta mineralak
aipatzen dira, bai eta

Gomendatutako Eguneko
Kopuruak (CDR) ere.

Errege Dekretuak, indarrean
dagoen araudia betetzen
duten elikagai produktuak
merkaturatzeko aldi
baterako epe bakarra
zehazten du, eta produktu
horiek 2012ko urriaren
30era arte merkaturatzeko
baimena ematen du.